



LEHEN MAILAKO HORNIDURA-SARERAKO METALEZKO HODI-EGITUREN ETA SAREEN HORNIDURA ETA MUNTAKETA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3295.

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3. - Kontratuaren arduraduna:	JAVIER CUESTA SANTA MARIA
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zenbakia: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuaren xedea: Galdaragintza metalikoko eta hoditeriako egiturak eta elementuak hornitzea eta muntatzea BBUPren lehen mailako hornidura-sarearen eremuan. 2.- Bete beharreko premiak: Lan horiek egiteko justifikazioa honako premia hauetan oinarritzen da: 1) Lehen mailako hornidura-sareko instalazioen arrisku-ebaluazioetan definitutako prebentzio-akatsak zuzentzea. Horretarako, irisgarritasun-arazoak konponduko dira egitura berriak muntatuz edo daudenak aldatuz. 2) Galdaragintza-erreformak honako programa hauetarako: a. Kontadore-parkea berritzea, hobetzea eta handitzea. b. Balbula-geletako hodi-sareak aldatzea, instalazioen prestazioak modernizatzeko eta hobetzeko. c. Kontserbazio-egoera txarrean dauden galdaragintzaren erreforma osoak edo partzialak biltegietan, kutxatiletan eta balbula-geletan. 3) Ohiko metalezko elementuak hornitzea edo hornitzea eta muntatzea, hala nola mugarriak, kutxatilik, atetzarrak, ate-barroteak, oinezkoentzako ateak edo sarraila normalizatuak. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Ez da bidezkoa lotetan banatzea, hornidura eta lan guztiak mota berekoak direlako, eta loteok elkarrekin lotuta daudelako. Kontratuaren xedean jasotako prestazioak modu independentean egiteak zaildu egingo luke kontratua ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea.
4.- CPV: 45223100- 7 Metalezko egituren muntaketa
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	HIRUREHUN ETA HIRUROGEI MILA ZORTZIEHUN ETA HEMEZORTZI EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (360.818,40 €), BEZik gabe.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 793.800,48 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ Balio zenbatetsiak barne hartzen du hornitu beharreko unitate-kopuruaren % 10erainoko igoera, kontratuaren prezioaren % 10eraino, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 301.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 16912.22199. - 2026. urtea: 40.204,60 € - 2027. urtea: 210.409,20 € - 2028. urtea: 110.204,60 €	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.	
8.-Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: BI (2) URTE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ; URTE (1) BATEKO BI (2) luzapen.
4.- Berme-epea: URTE (1) BAT
5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:



F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin: (180.409,20 €).

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken BI urteetan **150 mm-tik gorako diametroa duten hodi-sareak hornitzeko eta muntatzeko** egindako hornidura eta lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua adierazita. Zerrenda hori enpresa kontratatzaileak edo administrazio kontratatzaileak emandako lanak ondo egikarituak izanaren ziurtagirien bidez egiaztatuko da, eta 90.000 eurotik gorakoa izan beharko du.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.- 1. gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: balio-judizioen araberrako irizpideen dokumentuak.

3.- 3. gutun-azala: automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Eskaintza teknikoa bitarteko elektronikoen bidez baino ez da aurkeztuko, lizitazio-plataformaren bidez, PDF formatuko artxibo bakar batean, eta gehienez ere 20 orrialde izango ditu, A4 tamainakoak. Calibri motako letra-tipoa erabiliko da, 12 tamainakoa eta tarte bakunekoa. Izenburuak letra lodiz egongo dira zenbakituta, egituratuta eta indexatuta. Argazkiak, taulak, grafikoak eta diagramak sartu ahal izango dira, ezarritako orrialde-kopurua gainditu gabe.

Eskaintza teknikoa baloratzeko, ez dira kontuan hartuko ezarritako orrialde-mugatik kanpoko eranskin edo edukiak.

Dokumentuko puntuen hurrenkerak argi eta ordenan jarraituko du karatula honetako K.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK puntuan azaldutako balorazio-irizpide gisa erakutsitako zerrenda.

Dokumentazioa eskatutako formatuetan ez aurkeztea eskaintzatik kanpo uzteko arrazoia izan daiteke.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Eskaintza ekonomiko osoa, baldintza tekniko berezien pleguaren 1. eranskineko prezioen koadroan oinarrituta. Prezioen koadroa beteko da, ekipo bakoitzerako prezio bat eskainita, BEZik gabe.

Prezio horiek 2 (BI) urteko epean baremo gisa zenbatetsitako unitate-kopuruarekin biderkatzea izango da eskaintza ekonomikoa. Kuantifikazio hori gutxi gorabeherako zerrenda baino ez da, eskaintzak baloratzeko eta eskainitako prezio unitarioak finkatzeko tresna gisa, eta ez dakar inolako kontratu-konpromisorik unitate horiek hornitzeko eta muntatzeko, urteko hainbanaketetan edo inolako hainbanaketetan. Hornidura- eta muntaketa-mota eta horien kopurua Kontratuaren Zuzendaritzaren irizpidearen arabera eta Sare Zerbitzuaren beharren arabera egingo dira.

Horrela, lizitatzailleak erreferentzia bakoitzeko prezio unitario bat eskainiko du, eta prezio hori unitateen zenbatespenarekin biderkatuta (24 HILABETERAKO neurketa), erreferentzia bakoitzeko zenbatetsitako zenbateko osoa zehaztuko du. Erreferentzia guztien zenbatetsitako zenbatekoen batura izango da, berez, eskaintza ekonomiko baloragarria. Eskainitako prezio unitarioak lotesleak izango dira.

Kontzeptu bakoitzerako eskainitako prezioei baja eman ahalko zaie, baina ezingo dira erreferentziatzat emandakoak baino handiagoak izan.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (Administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒Kontratazio-mahaia

Epaimahaiburua:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.



I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 70 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 70 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzeko den lizitatzalearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

(Ob / OI) x z

Non:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena
OI = baloratzeko dagoen lizitatzalearen eskaera
z = honako irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 30 PUNTU

1-Proposatutako soluzioaren kalitate teknikoa (20 puntu)

A-Horniduraren eta horren eraikuntza-ezaugarrien eta ezaugarri funtzionalen deskribapen teknikoa (materialak, diametroak, loturak, tratamenduak, perdoiak, etab.).

B-Muntaketarako proposatutako ebazpen teknikoa, gauzatze-faseak, lan-sekuentzia eta dauden instalazioekiko bateragarritasuna barne.

C-Kalitate-kontroleko metrologia, ikuskapenak, presio-probak eta gainazaleko akaberen egiaztapena barne.

D-Diseinua eta eraikuntza zerbitzuan dauden instalazioetako lanetara egokitzea, ustiategiari ahalik eta kalte gutxien eraginda.

Nahitaezkoak ez diren hobekuntza teknikoak, kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta daudenak eta iraunkortasun, segurtasun edo mantentze-erraztasun handiagoa ematen dutenak.

2. Kontratuaren antolaketa eta plangintza (10 puntu)

A-Epeak planifikatzea eta faseen kronograma xehatua (diseinua, fabrikazioa, hornidura, muntaia eta probak).



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

B-Kontratuari atxikitako taldea antolatzea, egikaritzean egin beharreko eginkizunak eta koordinazioa deskribatuta.

C-Gorabeherak kudeatzeko proposamena eta premia- lanen aurrean erantzuteko gaitasuna, kontratu honi berariaz aplikatuta.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
 - Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
 - Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
 - Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.
- Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxienezko atalasea:

Prozesutik kanporatuko dira eskaintzaren balorazio teknikoan gutxienez **15** puntu eskuratzen ez dituztenak.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailerak arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 301.2. artikularen arabera, hornitu beharreko unitate-kopurua handitu ahal izango da, dagokion aldaketa-espedientea izapidetu beharrik gabe, kontratuaren prezioaren % 10era arte.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

1. KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratistak ordezkari bat izendatuko du, kontratuaren baldintzei eragiten dieten alderdi guztietan jarduteko eta enpresa ordezkatzeko gaitasun nahikoa duena..